



**GURASO BAKARREKO FAMILIEN ARAUBIDEA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan ezarritakoa betez, alde aurreko kontsulta egiten da; kontsulta honen helburua da arauaren eraginpean egon daitezkeen pertsonen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasotzea hurrengo gaiei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburua.
- Bestelako aukera posibleak, arauzkoak eta ez-arauzkoak.

<p><b>Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.</b></p>	<p>Guraso bakarreko familiek, beren familia unitatearen egitura beragatik, eta guraso bakarreko egoeran dauden familiek, bizi duten egoera bereziagatik, zailtasun handiak izaten dituzte aurrera egiteko. Gainera, beste familia-eredu batzuekin alderatuta, pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiagoa pairatzen dute. Pentsa, adibidez, zer zailtasun dituzten familia horiek hilaren amaierara iristeko, lana eta familia uztartzeko, seme-alabek izan ditzaketen premia bereziak asetzeko, eta, are gehiago, zer karga handia ekar dezakeen mendeko kide bat zaintzeak, hala badagokio, familia-unitatearen parte bada. Bestalde, ez da ahaztu behar errealitate hori larritu egiten dela generoagatiko diskriminazioaren ondorioz, guraso bakarreko hamar familiatik zortzik emakume bat baitute buru.</p>
<p><b>Ekimena onartzeko premia eta aukera.</b></p>	<p>Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna gizartean ezartzeko konpromiso irmoari eusten dio. Horretarako, haren osotasuna eragozten edo zailtzen duten oztopoak kentzen ditu, eta beharrezko neurriak hartzen ditu sexuagatiko diskriminazioa prebenitzeko eta borrokatzeko.</p> <p>Aurreko konpromisoa gauzatzeko, guraso bakarreko familien eta guraso bakarreko egoeran dauden familien errealitatea aitortu beharra dago, eta estatus propioa eman behar zaie, babes sozial, ekonomiko eta juridikoko esparru batez</p>



	<p>gozatzeko aukera emango diena. Estatus propio horrek beren eskubideak bermatuko ditu eta egun pairatzen duten pobrezia-arriskua eta gizarte-bazterketako arriskua nabarmen murrizteko gai izango da.</p> <p>Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8.4 artikulua arabera, proiektatutako dekretua Urteko Araugintza Planean ez sartzea behar bezala justifikatuko da dagozkion memorietan. Planean sartu ez izanak ez du inolako baliogabetasunik eragingo.</p>
<p><b>Arauaren xedea eta helburuak.</b></p>	<p>Proiektatutako dekretuak arau-esparru espezifiko bat sortu nahi du, babes sozial, ekonomiko eta juridiko handiagoa emango diena guraso bakarreko familiei eta guraso bakarreko egoeran dauden familiei, bai autonomia erkidegoan, bai tokian-tokian, eta bi helburu izango du: a) guraso bakarreko familiak eta guraso bakarreko egoeran dauden familiak aniztasun osoan definitzea, eta zehatz-mehatz zehaztea kontzeptu horietako bakoitzean txertatuta geratu behar duten familia-unitateak, eta b) euskal gizartean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna ezartzen jarraitzea.</p>
<p><b>Bestelako aukerak, arautzekoak eta arautzekoak ez direnak</b></p>	<p>Kontuan hartuta proiektatutako araudiaren irismen mugatua eta espezifikoa, gaiari buruzko lege-erreserbarik eza, eta EAEko guraso bakarreko etxekoan unitateen kalteberatasun-egoera eta lehenbailehen lehengoratzeko premia larria, dekretua proiektatutako helburua lortzeko arau-tresna egokitzat jotzen da.</p>